

KANALAK



Gure balio proposamena helarazteko, erabaki dugu aplikazioa bera izango dela gure bezeroekin harremanetan jartzeko erabiliko dugun komunikazio-kanal nagusia. Bertan, gure posta elektronikoaren helbidea adieraziko dugu edonork ekarpenik egin nahi badu. Play Store izango da gure produktua saltzeko erabiliko dugun kanala, bertatik edonork instalatu ahal izango du aplikazioa bere gailuan. Banaketa kanala internet bera izango da, inoren laguntzarik gabe bakoitzak behar duen informazioa eskuratzeko aukera izango du.

